

Ikerketaren sustapena Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko liburutegiaren funtsezko ardatz estrategiko bat da. Pertsonal akademikoari egindako nazioarteko inkesta baten emaitzetatik abiatuta, garatutako sustapen-ekintza nagusiak deskribatuko dira aurkezpen honetan. Zehaztasunez azalduko da nola jarri zen martxan Humanitate Digitalen garapenarekin lotutako ekimen berri bat. Hiru etapa bereizten ziren ekimen horretan. Lehenengo etapan, liburutegian jada bazeuden tresnak erabiltzen hastea zen abiapuntua, baliabide espezializatuak kudeatu eta hedatzeko Libguides tresna erabiltzea, nagusiki. Ikertzaileen eskaerek gora egin zutenean, liburutegiak beste tresna batzuk sortu behar izan zituen, proiektu desberdinen eskakizunetara egokituak. Bigarren etapa hori arrakastatsua izan bazen ere, argi zegoen metodologia hori proiektu berri bakoitzera aplikatzeko datu-base eta mapa espezifikoak garatu beharko zirela, eta horrek garapen-lana eta etengabeko mantentze-lana zekartzan. Hori zela-eta, liburutegiak hainbat datu-base sortzeko aukera emateko bezain moldakorra izango zen tresna bat bilatzea erabaki zuen, datu-base horiek ikerketa-taldeen behar desberdinei erantzun ahal izan ziezaioten. OmekaS plataforma aukeratu zuten, aukera ematen duena honako hauek egiteko: instalazio optimizatu batekin webgune ugari sortu eta administratzeko; datu ireki lotuak (Linked Open Data) dituzten elementuak argitaratzeko; baliabide-txantilo estandarizatuarekin elementuak deskribatzeko; webguneen funtzionaltasuna hedatzeko, baliabideak mapatu, bildu, inportatu eta konektatzen dituzten moduluekin, eta webgune bakoitza edozein pantaila-neurritara egokitu daitekeen gai desberdin batekin diseinatzeko. Hortik abiatuta, plataforma hori darabilten proiektuak aurkeztuko dira, eta, amaitzeko, ikertzaileek eta liburuzainek elkarrekin nola lan egiten duten eta elkarlan horrek zer onura dakartzan deskribatuko da.